

Aretxabaleta,
1992ko azaroak 19


Aretxagazeta



Atzeratuen aldeko jaialdiak

- Afizioak:
Azaleko gariak
kentzen.
- Bosniako umeak
Atxabaltara.
- Euskal Txokotik
kalera.

18 zka.



Zeren gainean (edo zeren kontra) idatzi ez daigunean, begi bistan da goena edo ahulena hartzen dugu gaitzat. Eta nik ere

Telebista erreferentzi puntu inportantea dugu gaur egun eta kasu askotan bakarra.

Otsoa artzain

horixe egin dut; aukeratu dudana gaia oso "begibistakoa" da eta ahulena ez bada ere, tonto fama du, "kaja tonta" deitzen diote eta.

Bistan da telebistaz jardungo dudala, etxeko aldarean ipinita daukagun "zera" horretaz. Tontoa ematen duen arren, izenak ez du sarri izanaz zer ikusirik.

Telebista bere benetakoz izakera ondo ezkutu-tzen duen animalia duzue, zuen etxeetako telebisio hori ardi itxura duen otsoa da. Otsoa bai, berarengan

fidatzen direnak jaten dituen piztia beldurgarria; Txanogorritxo bera ere fidatu zen eta ia jan zuen otsoak.

Otsoa ez da fidatzen ("non fida, han gal": dio esaera zaharrak) eta gure etxe askotan, zoritxarrez, otsoa bera dugu artzain.

Azken finean telebista erreferentzi puntu inportantea dugu gaur egun, inportantea eta kasu askotan bakarra ere bai.

Entretengarri eta jaikingarriak bertan batuta eta gordeta daudelakoan,

telebistaren aurrean egoten gara zain, geldi.

Hori dela eta, gizakia-ren bilakaeraren edo ebolutzioaren bide luze horretan, garai barri baten atarian gaudela esan daiteke, "homo pasibus" izeneko arraza ugalduez doa. Baina arrazakeriak modan ez daude, antza; eta hobe dut euron kontra ezer ez esatea.


Hala eta guztiz ere, beldur naiz ez ote duen oraingoan otsoak Txanogorritxo irentsiko.

Jon Antxia
Irakaslea


Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkartea, Kultur etxea, Aretxabaleta Tlnoa: 79 01 05 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos
Publizitate eta erredakzio arduraduna: Goretti Ayastuy **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabeitia, Beinke, Udala **Inprimategia:** Gertu Koop E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Zer daukazu esateko Bosniako umeak datozela eta?



Olatz Altuna
(ikaslea)



Juan Azpe
(Jubilatua)



Ana Jesus Urkia
(Langilea)



Manuel Algaba
(IKaslea)

Ondo ikusten dut laguntza hori ematea, baina horrekin ez dut uste bertako egoera konponduko denik. Gehiago egin beharko litzateke hango gerrateak gelditzeko edo konpontzeko. Baina hala ere ondo iruditzen zaizkit beste laguntzak.

Ahal den neurrian laguntzea ondo dago. Umeak hona ekartzea ondo ikusten dut eta entzun dudanez denak batera egongo dira eta ez etxeetan. Horrela euren ohiturekin jarraitu ahal izango dute.

Ondo ikusten dut hori. Nik ahal dudan neurrian lagunduko nuke, eropak emanez, dirua behar badute eta beste edozertan. Oso ideia ona iruditzen zait eta nire laguntza izango dute.

Niretako oso ideia ona da. Euren gurasoak gerratean badaude ondo iruditzen zait eurak hona etortzea, ni ere kasu berean egongo banintz gustatuko litzaidake horrelako laguntzak izatea. Nire aldetik izango dute laguntza.

KARTAK

Hobetzerik bai?

Zorionak aldizkaria hamabostero egitea lortu duzuenoi. Ordua zen Atxabaltak informazio aldizkari bat euskeraz izateko.

Ikaragarriko poza sentitzen dut ale berria jasotzen dudan bakoitzean.

Bestalde, gaur egun gero eta gehiago dira eskuartera iristen zaizkigun aldizkariak eta zorronez edo zoritxarrez konparazioak egin ere.

Ez dakit kritikak egiteko garaia iritsi den, baina hara hor nere auserdia:

- Tamainuz txikiagia egiten zait, argazkiak ez dira sarritan ongi bereizten, letrak ere begiak forzatzea eskatzen duelarik.

- Albiste batzuk ez dira ongi bereizten, ezaugarri bereziagoak beharko lituzkete: espazioa, letra moeta, argazkia....

- Datorren informazioa ez al da mugatu samarra? Sail gehiagoko asko aberastuko luke.

-Zergatik ez asteroko aldizkaria?. Lortuz gero denbora polita eskeiniko genioke herriko albisteei hamabostero ez bait da aski herrian gertatzen denaz jakinean egoteko ohitura hartzeko.

Zorionak

M.K.A

Utz ditzatela bakean

Denok dakigun bezala presoan egoera gero eta larriagoa da, nahiz eta batzuk ikusi nahi ez. Salto Del Negron aurtengo 3. gose greba jasatzen ari dira. Egoera hau salatzeke eta presoan giza eskubideak errespetatu ditzen. **Mobiliza gaituzen egoera hau salatzeke.**

Larunbata 21, 7.30etan Arrasaten manifestaldia. Atxabaltako Senideak

Bosniako haurrak etorriko direlako zurrumurruek entzun ditugu, baina gauza garbirik ez genekiela eta Nuria Agirrerekin izan gara. Nuria horretaz arduratzen dan taldeko partaideetako bat da. Eurek aurkeztu duten proiektua azaldu digu, baina oraindik ez dakite onartua izango den edo ez.



Bosniatik familiak Leintz bailarara ekarteko proiektua

• **Zenbat datoz eta non egongo dira?**

• Eskaria 40 baten-dako daukagu eginda. Horreik denok San Biator Harrera-Etxean egongo liriteke, oso leku ona da. Logela haundi batean egongo dira eta gero edozein ekintzatarako gela ugari daude eta baita kirol ekintzak egiteko zelaia ere. Bestalde Atxabaltako igerilekua ere hor izango dute, liburutegiak eta abar.

• **Bertan klaseak izango dituzte?**

• Bai, suposatzen dugu 9 umeko tutore bat etorriko dela eta orduan eurekin egongo dira. Etorriko ez balira Kurtzebarri eskola eta Luis Ezeiza eskola horiekiko lituzkete, baina hor arazoa hizkuntza izango litzateke.

• **Izango dute beste ekintzarik?**

• Bai, gure asmoa ez da han sartuta eukitzea,

hemengo ume eta jendearekin harremanak izan dezatela gura da. Astebukaeretan urteerak egingo dira eta hemengo familiak eurekin joatea espero da.

• **Noiz arte egongo dira?**

• 6 hilabete minimo, baina luzatu egin daiteke eta horretarako Udala kargu egin dadin eskatu dugu. 3 Udaletaoak elkartu ziren eta horretarako presupes-

toa zabaldu da.

• **Ze dirulaguntza daukazue?**

• Apuntatu den jende askok laguntza ekonomikoa eman du. Laguntza hori kuota moduan 5000 pezetan jarri dugu, baina bakoitzak ahal duena emango du, denak ondo hartuak izango dira eta. Eta gero Udalen laguntzak daude.

• **Noiz etorriko dira?**

• Joan dan astelehenean 150 etorri ziren estatu espainolera, hil honen 20tik 25era beste 700 etorriko dira eta 25etik 30ra beste 700. Guk aurkeztu dugun proiektua onartzen badute laster izango ditugu hemen.

• **Jendearen aldetik ze motatako laguntza jaso duzue?**

• Adibidez mediku eta horrelako profesionalengandik oso ona. Bestalde, jendearen aldetik ere ona izan da, kontuan izanda ez dugula kanpainarik egin. Jende asko enteratu ere ez da egin eta Bosniako umeen zain daude euren laguntza eskeintzeko.

AZKEN BAZTER
KAFE - TEATRO - CLIB



Herriko plaza

AROTEGI
GENERALA



PORTASOL

ARETXABALETA
Tnoa: 79 34 84



Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria

MZ MASAILARIAK

MASAIK ZARAIA
MASAIK eta
OSTEOPATIA

Loramendi, 13 - 1.A
Tnoa: 79 71 55



Deba erreka isurtzen diren isurkinei buruzko I. Udal Ihardunaldia

Datorren azaroaren 20an izango da jardunaldia, "Ibai garbi baten alde" lelopean. Jardunaldi horien helburua likido industrialen bilketa, hondakinen tratamendu egokia eta hondakin horiek kentzea da.

Jardunaldien egitaraua honako hau da:

9.30etan jardunaldieei hasiera ematea

9.45etan Norabideak eta Araudi Autonomikoa. Hizlaria Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro zuzendaria izango da, Juan Ignacio Escala jauna.

10.45etan Kafea.

11.15etan Gipuzkoako plangintza estratejikoaren

ondorioak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Felix Izco jaunaj jardungo du gai horretaz..

12.15etan Enpresek inguruarekiko duten ardurara. Adegiko idazkari orokorra izango da hizlari, Jose Maria Ruiz jauna.

13tan Atxabaltako hornikuntza eta saneamendu egitamu berezia. Josu Arrizabalaga izango da hizlaria, Sestra Ingenieros-ekoa.

13.30tan Ondorioak eta jardunaldien amaiera. Amaiera emateko Lan Hidrauliko eta Ingurugiro Foru Diputatua izango da, Enrique Noain jauna.

14etan Bazkaria.

Juan Ramon Arana sariak

Azaroaren 22an, Almenen Juan Ramonen oroimenez egindako lehiaketaren sari banaketa izango da eguگردiko 12.30etan eta gero Meza.

Irabazleak hauek dira: Aureskolan, marrazkien lehiaketan: Santa Rita Ikastetxean: Iker Azkoitia. San Biator Ikastetxean: Naiara Azkoitia. San Frantzisko Ikastolan: Joseba Eriz. Jose Arana Ikastetxean: Aratz. Umezaintzan: Jon. Udal eskolaurrekoetan: Ainintze Errasti.

1go mailan, marrazkien lehiaketan: Kurtzebarri Eskolan: Jon Lete. San Frantzisko Ikastolan: Josu Arana. San Biator Ikastetxean: Ainhoa Gruzeta. Almenen: Miren Vilchez. 2.mailan: Kurtzebarri Eskolako Adrian Merino. 3.mailan: Almeneko Jon Aranzeta. 4.mailan: Asier Herrasti. 5 eta 6.mailan: Kurtzebarri Eskolako Mainer Aizkorbe. 7 eta 8.mailan: 3 irabazle izan dira eta 3rak Almenekoak: Amaia Irizar, Mireia Olabe eta Lur Zubiaga.

Atxabaltako gazteek aldizkari bat atera dute. Honen izena KANTOI LIZUNA da eta leku desberdinetan izango da salgai. Atxabaltan, Urbaltz tabernan eta Gaztetxean. Eskoriatzan, Aldatz tabernan eta Arrasaten, Biona tabernan.

• Motxila bat galdu da. badirudi Maria Wörth plazan galdu zela. Aurkitzen duenak telefono honetara deitu: 79 74 52.

• ALMEN Ikastetxean Bosniarrei nolabait eurek ere laguntzeko janaria baturiko dute. Klase bakoitzean batutako diruaz egin dute bilketa hau. Furgoneta pare batek jaso zuen dena joan den martizenean.



Bere Bezeroen zerbitzura


Mitarte, 16
Tnoa: 79 01 72

SAGASTA ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak
Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

LEIBAR ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1

Tnoa: 7713 79

ARETXABAETA



Azkenaldiko obrak

Azkenaldian Atxalbaltan egiten dabiltzan obrei buruz zerbait jakin guran Udaletxeko aparejadorea den Jorgerengana jo dugu. Berak eman dizkigun azalpenak honako hauek dira:

Durana Kalean egiten dabiltzan obrak fatxadak berrizatzeko dira.

Fatxadak berrizatzea Diputazio eta Udalaren dirulaguntzarekin egiten dabilta, baina fatxadak konpondu arren kableak bistan geratzen direla konturatu zen Udala. 87an kalea berriztu zenean, kable horiek lurpetik sartzeko gertatu zen eta orain hori da egiten dabiltzan lana, kableak tuboetan sartzea.

Pagaldaixenekoetxea ere berrizketa horreitan sartzen da, fatxada oso zahartuta zuelako. Orain pintatzea bakarrik falta da, beste guztia eginda dago.

Azatzako bidean ere obretan dabilta. Hemen

bidea asfaltatu eta bihurgune bat zabaldu gura da. Horrekin batera Koruetako bidea eta aparkalekua bereiztea espero da. Baina guzti horren aurretik, lurrak jausten diren lekuak estabilizatu egin behar dira, horma bat eraikiz. Orain lan horretan dihardute eta gero hasiko dira bidea konpontzen.

San Migeleko obrak ere bukatzeko daude, azkeneko detaileak besterik ez dira falta. Detalle horiek baldosak ipintzea eta lorategiak konpontzea dira, horiek egiteko siku egon behar du lurrrak eta horregatik atzeratu dira lanok.

Kanposantuko obrei aste honetan emango zaie hasiera eta horiek gutxi irautea espero da.

Beraz orain badakigu egiten dabiltzan obrei buruz gehitxoago.



Urrezko eztaiak

Felix Orobegoak eta Martina Zubiak azaroaren 12an ezkontzaren urrezko eztaiak ospatu zituzten.

Felix Urrexola-Garai baserrian jaiotzen eta Martina Araotzen. Orain biek 74 urte dituzte eta orain dela 50 urte Araotzeko San Elias Ermitan ezkondu ziren, eguraldi onarekin. 7 seme alaba izan dituzte eta orain horietatik 6 bizi dira eta 9 biloba daukate.

Joan zen 13an ospatu zuten 50 urteurrena,

Oñatiko Bidaurreta Konbentuan emandako Meza batekin eta gero Txopekua Jatetxean izan zuten bazkariarekin. Guztia alaitzeko musika ere izan zuten Kintanilla soinu-jotzailearekin. Egin zitzaion oparia Italiarako bidaia izan zen eta azaroaren 26 arte han izango dira.

Anekdotan moduan esan genezake, Felix tabako zalea ez denez, puruak banatu behar-rean mila pezetako bana eman ziela gonbidatuei.

Umeen lanen erakusketa

Drogomenpekotasunaren astea dela eta haurrek egindako marrazkien erakusketa Euskal Txokoan daukazue ikusgai. Partizipazio handia izan da eta umek gogo handiz egin dituzte lanok.



Azaleko gariak kentzen dituela eta, Azatzan izan gara Pilar Areitorekin. Pilarrek gariak aspalditik kentzen ditu eta sekretua bere amarengandik jaso ei zuen. Leku askotatik eta desberdinetatik etorten dira Pilarrengana gariak kentzen.



Azaleko gariak kentzen

• **Noiztik daukazu afizio hori?**

• 18 bat urte inguru daroat. Nire amari nire aitaren izekobatek eman zion hil aurretik eta gero amak niri pasatu zidan. Nire amari eman ziola jakin nuenean poz handia hartu nuen eta gero niri oso laster eman zidan, berak ez zuela egingo eta.

• **Zelan hasi zinen gariak kentzen?**

• Lehenengo famila artekoiei eta lagunei kentzen nizkien. Gero zabalzen hasi zen, jendeak euren ezagunei esaten ziela eta. Nik neukez diot inori esaten etorteko, beste batzuen bitartez daki jendeak.

• **Denei joaten zaie garia?**

• Normalean bai.

Batzuetan birritan egin behar izaten dut, baina gero beti joaten zaie eta gainera beti garbi geratzen da, marka barik.

• **Ingurukoak bakarrik etorten dira?**

• Ez, Oñatitik eta Legazpitik ere bai, eta orain azkenetan Donostiakoak ere izan ziren. Kanpoko horreik hemengoena ezagunak dira eta euren bitartez jakin dutenak.

• **Gogoz egiten duzun lana da?**

• Bai, gogo handiz egiten dut, ez zait bape kostetan eta gainera borondatezko lana da.

• **Zelakoak dira kentzen dituzun gariak?**

• Masusten antza dute, horreitakoak kentzen ditut. Hanka azpiko

papilomak ere asko kendu izan ditut. Horiiek medikuek ere kentzen dituzte, baina min handia egiten du eta gero askotan berriro urteten dute.

• **Ze erabiltzen duzu kentzeko?**

• Lastoa kurtza bat eginda gari gainean jartzen dut, gerolasto horiek lurperatu egiten ditut eta usteltzen direnean garia joan egiten da. Hilabetera edo hilabete pare batera joaten dira normalean, badaude joateko denbora gehiago behar duten gariak ere. Kentzeko sinistu egin behar da, bestela alperrik da etortea. Gero niri gariak joan diren jakitea gustatzen zait.

• **Non eukitzen dira gehien?**

• Eskuetan gehienbat, baina aurpegi eta gorputzean ere izaten dira eta noski baita hanketan ere. Gainera urratzen bada eta horko likidoa beste leku batera pasatu, han beste batek urtengo du.

• **Gero zuk ere sekretoa norbaiti pasatuko diozu ezta?**

• Bai, ez nuke gura inori pasatu barik uztea. Ez da ezer kostetan eta borondatez egiten dena da, ez da kobratzen. Ekintza on bat delako egiten dut, ez zerbait jasotearren.

• **Jende asko etorten zaizu?**

• Bai, aste gutxi daude inor etortzen ez denik. Astean 3 edo 4 bat behintzat pasetan dira.

• **Zeure burua inoiz sorgintzat hartu duzu?**

• Ez, jendeak esaten dit erdi sorgina naizen edo, baina ez. Ez diet pertsoneri bakarrik kentzen baita animaliei ere. Nire tiari urrintetik eroaten zizkioten behiak gariak kentzeko.

• **Hasieratik urtetan zizun ondo?**

• Bai, edozein pertsonak egin dezake, sekretua jakitea besterik ez da eta fedea izatea. Interes barik egin behar den gauza da.

• **Badaukazu anekdotarik?**

• Behin mutiko bati eskuetatik 139 gari kendu nizkien.

Urteroko ohiturari jarraituaz, joan den zapatuan atzeratuen aldeko jaialdia izan zen eta datorren 28an bigarren partea izango da. Urtero egiten den jaialdi hori, orain dela 12 urte jarri zen martxan, eta herrian kulturaren alde egiten den ekintzarik inportanteenetakoa da.

Jaialdi horiei buruz zerbaite gehiago jakin guran Adolfo Etxebarriarekin izan gara. Berak Atzeratuen Aldeko taldeari buruz eta jaialdi horiei buruz hainbat gauza azaldu dizkigu.



Atzeratuen aldeko jaialdia

• **Noiz hasi zineten jaialdi horiek antolatzen?**

• 80. urtean hasi ginen. 12 urte daroagu, lehenengo 5 urtetan Kiroldegian egin zen eta han bertsolariak eta trikitilariak izaten ziren. Orduan ez genuen asko irabazten, askotan galdu ere bai eta gainera orduan behar gehiago geneukan. Errifekin irabazi egiten genuen baina ez sarrekin.

• **Non sortu zen jaialdia egiteko ideia?**

• Arrasateko Gurea zinemari, Arrasate Musika-lekijaialdi bat antolatu zuen bertakoikasleekin. Orduan konturatu nintzen debalde jotzen zutela eta guk sarre-
ra ordaindu genuela, be-

raz guk ere hemen gauza bera egitea pentsatu genuen. Horrela ez zitzaigun ezer kostatuko eta sartzen zen pertsona bakoitzeko irabazten urtengo genuen.

• **Zergatik izaten dira jaialdi bi?**

• Jaialdi bat eginda nahikoa da, baina bat egiteko jende larregi daukagu eta orduan bitan banatu behar dugu. Parte hartzeko jendea, guk eskatu beharrean eurak etortzen dira gugana. Akademitan dauden umeak desiatzen daude jaialdi hori egiteko. Jendea guri begira dago, beraz gu jaialdia egitera behartuta gaude.

• **Zergatik dauka jaialdiak hain arrakasta handia, herrikoek jotzen**

duTelako, atzeratuen aldekoa delako edo zergatik?

• Nik denagatik dela uste dut. Batetik, atzeratuen jaialdia denez jendea prest dago laguntzeko eta bestetik herriko seme-alabek parte hartzen dutenez, gehiago tiratzen du joateak. Gehienetan zinea guztiz bete da, igaz ez zen bete, baina beharbada propaganda arazoagatik izan zen.

• **Izan duzue inoiz arazorik?**

• Arazo larriena eszenarioarena da, txikia delako. Atxabaltan ez dago horrelako ekintzarik egiteko beste lekurik.

• **Ze erantzun jasotzen duzue partehartzai-leengandik?**

• Orain artean ona. Libre dagoen momentuan beti dago prest jendea etorteko. Inork ez du inoiz ezetz esan. Guk gastuak ez eukitzea da kontua, ez daukagu dirurik orduan etorten diren denak debalde etorten dira. Gainera guk ere jaialdiak asko mimitzen ditugu, azkenean detailerarte ondo prestatzen ditugu. Adibidez, propaganda handia egiten dugu jendea ondo enteratu dadin. Propaganda egiteko inportantea da buzoneoa eta altaboza erabiltzea.

• **Udalaren aldetik ze laguntza izan duzue?**

• Asko ez, guk ere asko ez diegulako eskatu. Guk ez dugu diru asko behar, orduan ez gara diru eske jotzen. Zinea bakarrik

**Akademie-
tako umeak
desiatzen
daude jaialdi
hori noiz
egingo, eu-
rak bertan
joteko.**

eskatzen diegu eta horretarako ere askotan trabak izaten dira, baina orain arte beti utzi digute.

• **Zenbat da kanpainan ataraten den dirua?**

• Errifek eta jaialdi biek osatzen dute kanpaina eta baita komertzioetatik jasotzen duguna ere. Denera 600 mila inguru ateratzen da. Gure gastua ez da ezer. Dirurik ez daukagunean eskatuko dugu, baina orain ez daukagu horren gastu haundirik.

• **Atxabaltako kultura indartzeko ere egiten da jaialdia?**

• Gure filosofia hori da, Atxabaltako kultura aurrera ataratea. Orain ez dugu horrenbeste diru behar eta gainera jarten ditugun sarrerak ere oso merkeak dira, jende gaztea joatea komeni delako. Gazteen gan kultura zabaltzea gura dugu. Ez dugu gura herriari dirua ataratzeko bakarrik, kultura zabaltzea baizik.

• **Beste inon egiten da horrelako jaialdirik?**



• Halako ekintzak Zumarragan egiten dituzte, han guk baino gehigo. Han zentro bat daukate eta urtean zehar ekintza desberdinak egiten dira: hitzaldiak, urteerak, jokuak etb. Han horretarako gertatuta dagoen jendea ari da leanean. Lehen Oñatin tonbola ataraten zen, Eskoriatzan Aitzorrozt egunean,

Gure filosofia Atxabaltako kultura zabaltzea da.

Arrasaten eta hemen ere bai. Baina lehen gehiago egiten zen behar gehiago zegoelako, eskola berezi-tarajoaten zirelako atzeratuak. Orain ere badaude eskola berezietan batzuk eta horiek gastu haundia-goa daukate.

• **Zenbat partaide zarete?**

• 13 bat gara eta betikoak 5 bat. Orain gehi-gara eta horrela lana banatzen dugu. Askotan 3 lagun bakarrik ere ibili gara lanean.

• **Badaukazu anekdotarik?**

• Juan karlos Irizar etorteko zen behin eta azkeneko momentuan ezetza eman zigun haserretu egin zirelako. Azkenean gurasoekin elkartu ginen eta lortu genuen etortea.


Litri eta Bernaberen omenaldia ere oso emozionantea izan zen. Banda guztia alkartu genueneko urtea ere lan haundiko urtea izan zen.

Bertatik orain arte pasatu diren partaideak:

- Irizar eta Eskoriatzako umeen abesbatza.
- Txiste kontalariak, bertsolariak, txistulariak, soinu-jotzaileak etb.
- Antzerki taldea.
- Bergarako Banda.
- Arrasate Musikaleko orkestra.
- Eskoriatzako Banda.
- Arrasateko Akordeoi Banda.
- Arrasate Musikaleko Baleta.
- The Domingez All Star Big Band.
- Goiko Balu.
- Atxabaltako Banda zaharra.
- Aretxabaletako Abesbatza.

Atzeratuen aldeko taldeak,

Aretxagazetak eskeintzen ditugun aukerarengatik esker-rrak eman gura dizkiegu. Batetik bertan parte hartu duten denei eta bestetik, komertzioetako jendeari eta baita urtero lagundu izan diguten beste guztiei ere. Mila esker gure partetik eskeini diguzuen laguntzagatik.



Euskal txokotik kalera

Azken urteotan Atxabaltako normalizazio linguistikoa lortzeko hainbat ahalegin egin dira, hor daude Euskara Batzordea, Udal teknikaria, Udal Euskalategia, Aretxagazeta, Beinke, etb...

Ekimen horiek izan dute eta badute eraginik herrian, baina lehen aitaturtako normalizazio linguistikoki hori lortzeko beharrezkoak badira ere, ez dira nahikoak. Euskara gure gizarteko esparru guztietara zabaldu gura bada, atxabaltarron eskuetan dago giltza.

Zergatik Euskal Txokoa?

Sarri gertatzen da euskaldun-berri batek, aitortzen dioguna baino borondate haundia goarekin euskara ikasteari ekin, baina inon edo inorekin berba egiteko aukerarik ez daukala eta -lagun euskaldunik ez daukalako, edo euskaldun zaharrok aukera askorik ematenez diogulako- ikasitako dena bertan behera uztea, horrek dakarren frustrazioaz.

Baita euskalduna izanda ere, moda delako edo, bada erderara jotzen duen hainbat. Euskal giroan bizi diren eta horrela jarraitu gura dutenak ere badira. Guzti horientzat gune apropo-

sa izango litzateke Euskal Txokoa, ez getto moduan, euskara kalera zabaltzeko zubi bezala baidzik.

Euskal Txokoaren zuzperle eta eragile

Euskararen erabilera denon gauza denez, arlo desberdinetan lanean diharduten herriko talde, elkarte edo edonork bideratuko luke Euskal Txokoaren dinamika. Berebiziko garrantzia eukiko luke euskara ikasten dabilzanak bertan partaide, sortzaile eta, zergatik ez, gidari izateak.


Beraz, oso publiko zabalera eta ekintza desberdinetara zabaldu-

ta egon behar du, ikastaroak edo hitzaldiak emateko, euskal aldizkariak irakurtzeko, lagunekin elkartzeko,.... Kultur Etxe, Ludoteka, Taberna, nahi duguna izan daiteke, euskararen erabilpena ziurtaturik dagoen bitartean.

Euskal Txokoaren ideiaia lantzeko dago eta lan honetan murgiltzeko prest gauden edonork saiatu behar dugu jorratzen eta aurrera ataritzen. Herriak bakarrik eman diezaioke euskarari bere bizitza ziurtatu eta indartuko duen osasuna. Hitza denona da. Euskaraz, noski!

BEINKE

Aurten ere Murruxiko Mendi Elkarrean mendia astea antolatuko du. Ekintza horiek azaroaren 16tik 29ra izango dira. Egun horietan zehar ekintza asko eta desberdinak izango dira: diapositibak, hitzaldiak, urteerak eta abar. Guzti horren berri zehatza jakin dezazuen hona hemen egitaraua.



Mendi Astea 92

Astelehena 16:

Durana kalean, arratsaldeko 7.30etan: Alpesei buruzko diapositibemanaldia izan zen.

Martizena 17:

Zaraia zineman arratsaldeko 7.30etan: Beken Eguzkiza hizlaria izan zen, Austriatik Nizara skiz eta Alpeetako zeharbidea-ri buruz berba egiteko.

Eguaztena 18:

Zaraia zineman arratsaldeko 7.30etan: Juanfer Azkona hizlaria izan zen, NUM 89-ri buruz berba egiteko.

Eguena 19:

Arratsaldeko 7.30etan Quike De Pablosek Makaluko mendebaldeko "Pillar" ri buruz emandako hitzaldia entzun ahal izango dugu.

Eguakotxa 20:

Egun horretan, Zaraia zineman gabeko 10etan Mari Abrego izango dugu hizlari eta gaia " Nanga Parbat Ruta Kinshofer " izango da.

Zapatua 21:

Sorpresa.

Domeka 22:

Egun honetan Gipuzkoako itzulia izangoda: Deba-Urkarregi.

Martizena 24:

Durana kalean arratsaldeko 7.30etan diapositibemanaldia ikusteko aukera izango dugu, Frantziako Pirineoari buruzkoak, hain zuzen ere.

Eguaztena 25:

Oraingoan Bideo gelan izango da, arratsaldeko 7.30etan. Oskar Chanca-k Piraguisoari buruz eta ur

biziei buruz jardungo du.

Eguena 26:

Zaraia zineman arratsaldeko 7.30etan Antonio Mirandak "Torres Del Tango" eta " El Espolon De Los Noruegos " gaiei buruzko hitzaldia emango du.

Eguakotxa 27:

Zaraia zineman gaueko 10etan, Ricardo Arregik, Zaragozako klinikoak, izozketari buruz berba egingo du.

Zapatua 28:

Egun honetan ere sorpresa izango da. Zer ote da Murruxikokoek gertatuta daukaten sorpresa hori?.

Domeka 29:

Aurtengo Mendi Aste edo Hamabostaldiari amaiera emateko Toloñora urteera egingo da.

• Joan zen igandean, U.D.A taldeak, barriro ere galdu egin zuen 0 eta 1 Danak taldearen aurka. Danak taldeak aukera gutxi izan arren, euki zuen bakarria aprobeitatu eta garaipenarekin joan ziren. Ezin daiteke esan, U.D.A taldeak ez zuela ahaleginik egin, baina azken finean balio duena golak dira, eta ezin izan zuten bat ere lortu.

• Joan zen asteburuan, Gabonetako pala Txapelketa hasi zen. Txapelketa horretan 12 bikotek hartuko dute parte, Guztira 5 jardunaldi izango dira eta finala abenduaren 27an jokatuko da. Partiduak, Iturrigorri frontoian eta Kirol-Etxean jokatu dira.



Aretxabaletako Musika Bandaren berrazalpena dela eta, hona hemen datorren asteko ale bereziaren aurrerapen bat.

Beheko lerroan:

Guirado, R. Garro, J.L. Cavero, J.San Martin, P. Pérez, D. Iriarte (zuzendaria), J.Lasagabaster, Etxenagusia.

Erdiko lerroan:

J.I. Iturbe, P. Igartua, E. Lacalle, X, P. Garcia, P. Pérez, X, X, U. Velasco.

Goiko lerroan:

J. R. Quintanilla, P. Urzelai, J. Urreta, J.R. Aranzabal, L.Eraña, J.L. Zubiria, Guridi, M. Uribetxebearria, B. Rodriguez.

ERRETRATOAREKIN JOLASEAN

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.
 - Asmetan dutenen artean Everest espedizioko kamiseta bat zozketatuko da.
- Hona hemen aste honetako galdera:
Ze egunetan ospatzen dira auzo horretako jaiak?

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Azatzako elizan)



Aurreko lehiaketaren irabazlea **JON AGIRRE URKIA** izan da. Zorionak!

Erantzuna:

- Izen-abizenak:
- Helbidea:
- Tfnoa:

BESTEAK BESTE



Hainbat ekintza desberdin izan dira:

Areantzan jaiotako eta bertan bizi diren andrak betiko bazkaria egin zuten joan zen **zapatuan 14ean**. Bertan 27 alkartu ziren eta argazkian ikusten den moduan ondo pasatu zuten.

Eta bazkari batetik afari batera goaz, Berrizen **Marinoren** omenez egin zena. Han izan ziren Peña Marino ordezkatur: **Felix, Iñaki, Alfredo** eta **Ramon**. Zurrumurruek diotenez, **abenduaren 20an** izan daiteke Atxabaltan Marinoren omenaldia.

Buelta beste bazkari batera, Oraingoa **Arkarazon** egin zen hilaren **14ean**, **San Millan** jaiak ospatzeko. Aurtengo jaietako ekintza nagusia izan zen, aurtengoa transizio urtea izan delako.

Eta bitartean, beste batzuk lanerako alkartu ziren. **Kurtzebarriko Guraso Elkarteak** egin zuen bere urteroko bilera, **azaroaren 12an**. Igazko ekintzak aartzetzeko eta datozenak gertatzeko.

Argia egutegien zain gaude, baina interesatuek, jakin, laster Atxabaltan izango dituzuela, 1000 pezetan.

Idazkari barria dago Udaletxean, **Xabier Mendizabal**, azkoitiarra, Edurne Eskoriatzara doalako.

POESIA

Amets bat egin dut

Euskal Herri eder batetaz
egin izan dut ametsa,
ez dela inoiz bukatuko,
inork ez dezala pentsa.
Zer zoriona euskaldun seme
bakotxak senti baleza,
gau ezti batez ametsa neri,
utzi didan esperantza.

Ametsak zuen berebilean,
joan nintzan bidez bide.
Herri seinale erdarazkoak
norbaitek zituen gorde.
Euskara batu garbi eder bat,
zagon erdararen orde.
Lehen aldikotz ikusi nuen,
bidea neure haurride.

Gure herriak orain artean,
zenbat odol du ixuri,
horrela luzaz bizi laiteken,
neri etzait iduri.
Gaurko amets hau agertzen bada
Herriaren salbagarri
Euskal Herriko seme alabak,
egin zaitezte ametslari.

E. MARTIKORENA
Iparraldeko artzai - kantaria

KOMIKIA

Nicky to Paul

NEQUAN JENDEA, ELKARTURU EGOEA GUSTATZEN
ZAIKO... BAKOITZAK BERE GIRO EGOKIA AURKITZEN-D
SAIATU OHI DA...

BAINA HORRETRAKO
UDALAK MEDIOAK BEHAR DITU
I PINI.



LOKALAK
ORAIN !!!

(TALDE UGARAI DAGO LOKAL ESKE: EUSKAL TXOKDA, PINTURA, ETABAR LUZE BAT.)

APUNTETAKO

21

ZAPATUA

- Arratsaldean, Akordeoi orkeztza.
- Gaueko 10.30etan, Zaraia zineman "Bugsy" filmea.

- Futbol partidua: U.D.A - C.D. Pasajes.
- Arratsaldeko 4.30etan Zaraia zineman: " LA PANDILLA " filmea eta 7retan " BUGSY " filmea.

na. Jarraian hitzaldia eta dokumentu berbera abesbatzak abestukodu.

29

DOMEKA

- Bandaren berrazalpena.
- Zaraia Mendi Taldearen irteera: MUGARRILUZE.
- Murruxiko Mendi Elkartearen irteera: GORRORDO.

22

DOMEKA

- Zaraia Mendi Taldearen irteera: Arlutz-era eskolarteko kirola.
- Eguardiko 12etan: Santa Cecilia abesbatzak Mesa Santuan emanaldia emango du.

23tik 27ra

- MENDI ASTEA. (ikus egitarau berezia)

27

EGUAKOTXA

- Gaueko 10etan Zaraia zineman: " LA MANO QUE MECE LA CUNA " filmea.

- Futbol partidua: U.D.A - C.D AMAIKA BAT.

28

ZAPATUA

- Gaueko 10etan Zaraia zineman: Atzeratuen aldeko jaialdia.

25edo 26

- XII. mendeko dokumentuaren aurkezpena.

- Arratsaldeko 4.30etan Zaraia zineman: " EL HOMBRE DE CALIFORNIA " filmea eta 7retan " LA MANO QUE MECELACUNA " filmea.

ARETXAZOKA

Etxebizitzak

- Pisu bat alokatzen da. Interestuok telefono honetara deitu: 79 40 19
- Eskoriatzan etxebizitza batean logela bat alokatzen da. Deitu astebukaeretan telefono honetara: 64 34 14.

Lana

- Alemana hutsetik hasita ikasi gura nuke. Norbaiterakusteko prest balego, dei dezala ilunkaretan zenbaki honetara: 79 41 94.
- O.H.O ko klase partikularrak ematen dira. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 68 18

Salerosketak

- Durana Kalean lengo Kutxako lokala saltzen da. Interesatuok deitu telefono honetara: 41 12 65 eta 41 20 44.
- Matrimonioko logela bateko altzariak salgai, egoera onean daude. Tnoa: 79 26 60
- Garaje bat salgai Lausita Kalean. Tnoa: 79 99 86.

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

PUBLIZITATEA

SEAT
 
GARAGE
OSKAR
Basabe poligonoa
A - 2 - 4
Tfnoa: 79 98 74

ZARAIA TABERNA
GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA
ANAIK

BASABE
JATETXEA
Menu eta afariak
Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 31 84

GARAGE
" EDER "

Karrozeria
mekanikoa

IBARRA S/N
Tfnoa: 791666
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA
ALTZARIAK
DISENUA
APAINKETA
BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

 **EROSKI**
Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.
DURANA ETA ARALAR KALEAN
Tfno: 79 16 05

ARBULO
URDAITEGIA

Tfnoa: 79 02 24

GATZAGAN
Ireki berria!!!
ZUHAITZ jatetxea



HAU BAI
HAU,
JATETXEA!
Tfnoa: 79 79 39

NERIAN
Loradenda

Otalora, 14 behea
Tlfnoa 79 70 66

MITARTE
GARAI
(JATETXEA)

Arientzan
Tlfnoa: 79 17 51

I O S U
URDAITEGIA

MITARTE, 1 eta
GORBEA, 8

Jantzi Denda
ASENSIO
Mitarte. 12 - Tfnoa: 79 10 72
Aretxabaleta


MATIKUA
JATETXEA
(AZATZA AUZOA)
Tfnoa: 79 17 68

Autoservicio
ANGELINES

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 61 42

  
GARAGE NORTE, S.L
OPEL AGENTZIA OFIZIALA
Basabe Pasealekua - A - 13 - Tlfnoa: 79 62 65

PUBLIZITATEA



Gaurtik aurrera, aurrezki-zerga gutxiago ordaintzea eta errentagarritasun altua eskuratzea, den-denon esku-ra dago. Euskadiko Kutxaren Fiskal Aurrezki-Planarekin.



Lagun guztiek bere aurrezkiengatik etekinik handiena eskura dezaten bereziki dizeinatu. Erabilgarritasunari uko egin gabe. Zerga gutxiago ordainduz. Eta uneko errentagarritasun garbia handienarekin. Inbertsio-fondoa delako -Caja Laboral Renta FIM-. Baina, libretan, dena argi, seguru eta erraz jarrita ikusteak daukan erosotasunaz. Informa zaitetz gure edozein sukurtsaletan. Euskadiko Kutxa. Oraingoa unerik egokiena.

**Euskadiko
Kutxa**

